

Aita Larroka donostiarra

Seguramente son pocos los donostiarras que puedan evocar con algún conocimiento la figura del Padre Larroka, a pesar de que su nombre figura en el callejero de la Ciudad. Al parecer, tampoco los dominicos, que le eligieron como Maestro General de toda la Orden y a los que gobernó durante una docena de años (1879-1891), le han prestado mayor atención en Internet. Hay que actualizar, por tanto, la información.

Euskal Herrian egon diren Institutu Erljijsosen sorkuntzan edo berorien Gobernu Nagusian buru izandako protagonistak ez zaizkigu falta izan. Jesusen Lagundian San Ignazio da bat, eta Mixel Garikoitz betarrandarretan, Sta. Kandida santu egin berria beste bat.

Institutuen sortzaileen ondoren, batez ere XIX. mendean, beraien Ordena-izanberritzaileak aipa daitezke, hauen artean euskal herritarak ez baitira gutxi izan. Hala gertatu zen karmeldarren artean, frantziskotarretan eta bestetan.

Domingotarren artean Aita Jose Maria Larroka-ri dagokio protagonismo hori, Penintsulan izan zituen ekimenengatik, eta hain zuzen mundu osoan fraide horien Ordena izanberritzeko egindako ahaleginengatik.

Jose Maria Larroka (1813-1891)

Ikus daitekeenez, Larrokek bete-bete hartu zuen XIX. mendea, eta haren bizialdiko hamarkadetan gertatu ziren gure artean Ordena eta Kongregazioen deusezteak eta izanberritzeak, bata bestearen ondoren.

Gerra napoleondarrak amaitzear zedela, aliatuen erasoan Donostia erre zen, hain zuzen Jose Maria jaio zen urte berean (1813). Mutil kozkorretan San Telmoko domingotar komentu ireki berrian ibili zen meza-mutil bezala, eta hamaisei urterekin sartu zen fraide haietarako Nobizio-

aldia egiteko Gasteizko haien komentuan (1829).

Handik aurrera, aukeratutako Ordenaren une on eta txarrak bizitzea suertatu zitzaion, garaiak hala etorri zirelako. Hasteko, Burgos-en bukatu zituen apaizetarako lehen fraide-ikasketak (1834). Ez zen hura abagune ona, Gerrate Karlistaren barruan Gobernu liberalak gizona zkoen komentuak ixtea erabaki baitzuen.

Fraide bakoitzak bilatu zuen euskal sorterrian ahal zuen irtenbide erosoena, erbestera edo misioetara joan ez zenean. Larrokek bere bizileku ahalik egokiena segurtatzeko, karlisten eskuetan zegoen lurraldera eta bertako domingotarren komentu batera jo zuen (1836), Azpeitira.

Herri horretan jarri zen bizitzen, artean esklaustrazioak harrapatu ez zuen hango etxean, eta 1838an apaiz egiteko aukera izan zuen han bertan. Gero, liberalak nagusitu zirenean (1839), hori beste gabe nahikoa izan zen euskal Iparraldera joan behar izateko, Hegoaldeko beste hainbat fraide bezalatsu. Denbora batez, Lapurdiko Basusarrin bizi izan zen, harik eta 1843an berriz Azpeitira itzultzeko aukera izan zuen arte; baina oraingoan Donostiatik ihes eginda herri horretan babestutako moja domingotarren zerbitzuan.

Data horretatik hasi zen Larrokaren egiteko handia, Ordenaren Espainiako eta munduko izanberritze-lana, hemen Penintsulara, eta gero Erroma eta Manilaraino iritsiko zena.



Domingotarrak izanberritzen

Hemen esanda daukagu (ik. *Arantzazu*, 2007ko urria) domingotarrak aspalditik zeudela Euskal Herrian; esate baterako, Lizarra, Baiona, Gasteiz edo Donostian sona handiko komentuak zituzten, beste zenbait komentu txikiagoren ondoren. Predikua eta irakaskuntza ziren komentu hauen zereginetako bi nagusienak.

Baina Larroka fraide-apaiz gaztea, bere hogeita bost urterekin Ordenako komenturik gabe geratu zen. Zer egin egoera hartan? Bizitzak berak ekarri zizkion galdera eta erantzun beharreko erronkak.

Fraideen San Telmoko komentua itxita zegoen, noski, eta XVI. mendetik moja domingotarrak Donostiako Antiguano izandako komentua karlistek berekerre zuten, liberalek hartu eta bertan indar-gotortu ez zitezen (1836). Donostiako moja domingotarren komentuko kapeilautza posiblea ere errekarra joan zen, eta, oraingoan moja donostiarrekin batera, Azpeitira itzuli behar izan zuen berriro Larroka, 1843-1850. etako urteak han emateko.

Hurrengo hamarkadan, Ahizparte domingotar beraren kapilau zela, Donostiako Uban, Andre Mariaren Ermita ondoan eraiki zuen komentutxo txiki bat, eta orduan eta gero beti izan zuen atxikimendu berezia horko moja-komunitatearekin, han eta Ategorrietan jarri zirenean ere.

Inguruko baserrietakoek "Bikariyo Txikiya" deitzen omen zioten; Ermitan bertan igandero bi Meza ematen zituen, eta parroketan sarri zebilen sermolari eta aitor-entzule bezala, euskaraz bere zereginak zainduz. Euskalduntze-

lanen bat ere egin zuen Napoleon III.aren ahaideko bati San Martín auzoan euskara irakatsiz.

1860-1891. urteetako lana, ordea, beste tamaina batekoa izan zuen, domingotarren Corias-ko komentua ireki (Asturias, 1860), Erromara Maisu Jeneralaren laguntzaile bezala joan (1872) eta Maisu Jeneral hautatu zutenetik (1879). Deseginda zegoen Ordena berregin behar izan zuen, horretan berarena zen hain zuzen ardura nagusia.

Ordenaren gobernuan lerro ardatzak landu zituen: Ordenaren batasuna segurtatu, lehengo (eta horretarako, monarkiei berengantutako eliz gobernu eskumenak moztu), komentu biziera arautua gordearazi eta ikaskuntza sustatu; bestalde, ia mundu osoko Probintzia erlijiosoak ikustatu zituen.

Larrokari zor zaio domingotarren bi kultur-gune sonaturen sortzea, biak ere emaitza onak eman dituztenak: Jerusalemgo Eskola Biblikoarena, katolikoaren artean zientzia biblikoak indarberritu dituena, eta, Suitzako Fribourg-en, halako pisu historikoa izan duen Unibertsitateko Teologi Fakultatea. Eskola hark bezala Fakultate honek Eliza Katolikoan bide berriak urratu dituzte XX. mendean.

Larroka Maisu Jenerala Erroman hil zen, 1891ko urtarrilaren 8an. Aita J. Barrado historialari domingotarrak agindu digu Larrokaren biografia serio bat idaztea, eta horren zain gaude orain.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrak: 610273580